

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Beheko aldea

DATA: 2017/11/7

| Saila | Laburpena | |
|--------------|---|--|
| Udaltzaingoa | Auzotar batek segurtasun handiagoa eskatu du Barrena kalean, errepidean 30 km/h-ko abiadura jarrita. | Kontrol-mekanismorik jarri ezean, Barrena kalean gehieneko abiadura moteltzeak ez luke ezer konponduko. Eibar 30km/h-ko hiria izateko hausnarketa egiten ari da. |
| Obrak | Barrena kalean pasabide goratuen hobekuntza eskatu du, zehatzago, 22 zk.an kokatutako pasabidean eta salatzen du bi pasabide falta direla Urkizun (Zubi-Gain taberna baino lehenago eta ondoren). | Zubigain aurretik pasabide goratu bat egitea ezinezkoa da, Galizia etxerako arrapala eta garajeak daudelako. Zubigainaren ondorengoa egitekotan dago. |
| Zerbitzuak | Auzokide bat kexu da Karmen eta Barakaldo arteko bidegurutzean, LIDLren parean dauden semaforoek gaizki funtzionatzen dutela. | Sinkronia arazo bat egon zen, eta mantentze-enpresari abisua pasatu ondoren, urtarrilaren erdialdean konpondu zen. |
| Obrak | Auzotar bat kexu da 33. eta 34. zk-etako garajeetan hezetasun handia dagoena eta ez dela arazo hori konpondu. | Lanean ari gara eta filtrazioen jatorri bila arazoari konponbidea emateko. |
| Alkatetza | Informazioa eskatu du Azpiakutuen Ospitaleko obren inguruan. | Ospitalearen inaugurazio-ekitaldia urriaren 22an egin zen eta 29an hasi zen zerbitzuak eskaintzen. |
| Obrak | Erabilera anitzeko Errebaleko espazioari buruzko informazioa eskatu du. | Dragados eraikuntza-etxearen kontratua moztu ondoren, proiektu eraberrituaren idazketa kontratatu da, non egiteke dauden obrak zehaztuko diren. Proiektu hau azaroaren erdialderako entregatuko da; obrak datorren urtearen hasieran hasiko dira berriro egiten. |

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Beheko aldea

DATA: 2017/11/7

| Saila | Laburpena | |
|------------|--|--|
| Alkatetza | Azitaindik Maltzagarako bidegorriaren proiektuaren gaineko informazioa eskatu du. | Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa departamentuak 2018ko urtarrilean bidalitako informazioaren arabera, proiektua idazten ari da, eta amaitu ondoren, obrak 2019 urteko lehenengo hiruhilabetean hasiko dira. |
| Alkatetza | Auzotar batek Mugikortasun Planaren egoerari buruzko eta herri barruko abiadura-mugei buruzko informazioa eskatu du. | Eibar 30 km/orduko herri izan dadin ari gara lanean. Proiektu eta azterketa batzuk dauzkagu eta aztertzen ari da. |
| Hirigintza | Auzotar bat kexu da gazteentzako lokalak ugaritu direlako eta ordenantza aplikatzea eskatzen du. | Ordenantzak esandakoa betez, Udaltzaingoan salaketa bat egiten bada, jarduera legeztatuta dagoen egiaztatzen da, eta, horrela ez bada, lokala itxi egiten da. Legeztatuta badago zehapen-espeditatea irekitzen da, eta lokala ixteraino irits daiteke. |
| Obrak | Salatu du ura gainez egiten jarraitzen duela Karmengo parkean, 4 eta 6 zenbakien parean eta baita parkera joateko eskaileretan ere, eta baldosak solte daudela. Garajeetan ur-isurien arazoa konpondu arren, parkean mantentze-lan handiagoa eta garbiketa hobea behar dela dio. | Ur-sartze arazoak konpondu dira eta solte zeuden baldosak ere konpondu dira. Ura eskaileretatik irteten da, eskailera azpiko inpermeabilizazioa ondo eginda dagoelako eta ez duelako uzten ura filtratzen. |
| Hirigintza | Txontako auzokide batek eskatu du kale horretako komunitateen presidentek deitzeko, Eusko Jaurlaritzak auzoa zaharberritzeko jarri behar dituen balizko diru-laguntzen inguruko informazioa emateko, eta baita zer urrats eman behar diren jakiteko ere. | Txontako laguntzen inguruko informazioa emateko hainbat urrats eman dira, eta, azkenik, "auzoko bulegoa" zabaldu da, erkidegoei eta partikularrei informazio zuzena emateko. |

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Beheko aldea

DATA: 2017/11/7

| Saila | Laburpena | |
|------------|--|---|
| Hirigintza | Auzotar batek Txonta auzoko bizilagunen eta enpresarien kezka azaldu du eta auzoa txukuntzea eskatu du. | Auzoa hobetzeko lanean ari gara, birgaitze-obretarako laguntzak emanaz; bestalde, Euko Jaurlaritzarekin hitzarmen bat egin da hiri-berroneratzerako, eta urbanizazioan ere hobekuntza-obrak egin dira; igogailu bat jartzeko asmoa ere hor dago. |
| Zerbitzuak | Auzotar batek esan du Iparragirre eta Barrena kaleen artean intxaurrondoak inausi zirela, baina adarrak batu barik laga zirela. | Inausketa egin zenean, hantxe bertan utzi zen moztutakoa, zaila zelako handik ateratzea, eskuz atera behar da-eta. Jendea ez da hortik pasatzen eta, ondorioz, ez da beharrezkotzat jotzen jasotzea. |
| Obrak | Barakaldo kaleko bizilagun batek eskatu du 27 eta 29 zenbakien arteko igogailuan estalpetxo bat jartzeko, euria egiten duenean bizilagunak busti egiten direlako igogailuaren zain dauden bitartean. | Konponbide bat aztertzen ari gara, baita kostua ere. |
| Zerbitzuak | Kexu da Asua Erreka inguruko kutxatiletako bat hostoek estaltzen dutela sarri eta horrek eragiten duela ura pilatzea eta etxeetaraino ailegatzea. | 2018ko apirilaren 19an garbitu zen. |
| Zerbitzuak | Salatu du, Asua Erreka eta Electorciclosen arteko bidean, arbolen hostoek eta belarrak oinezkoen pasabide ia osoa betetzen dutela eta jendea errepidera irtetera behartzen duela horrek. | 2018ko otsailaren 13an egin zen sastraka-garbiketa. Edozein kasutan ere, bide horretan ez dago oinezkoen pasorik, bazterbide txiki bat baizik, eta handik ezin da pertsonarik ibili. Baserri-bideetako garbiketa-lana egiten duenean alde hori ere sartzeko eskatuko zaio Debemeni. |
| Obrak | Auzotar batek eskatu du aldapa uniformeago bat sortzea Asua Errekarako igieran eta baita espaloia zabaltzea ere. | Asuaerreka kaleko aldapa aldakor horiek derrigorrezkoak dira tailerretara sartzeko. Bateratzea eta espaloiak egitea |

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Beheko aldea

DATA: 2017/11/7

| Saila | Laburpena | |
|--------------|---|--|
| | | Asuaerreka kalearen eta eraikinen berritze-lanarekin edo erabateko eraberritzearekin daude lotuta, eta horretarako ez dago datarik aurreikusita. Hala ere, kontuan hartuko da. |
| Udaltzaingoa | Kexu da, egunetan, ibilgailu bat egon dela STOP seinale horizontalean aparkatuta, Asua Erreka inguruan. Eskatu du gaizki aparkatuta dauden ibilgailuak kontrolatzeko. | Kontrolatzen dira ibilgailuen geldialdi desegokiak. |
| Zerbitzuak | Eskatu du Electrocicloseko 29 zenbakitik 35era bitartean dagoen barneko patioan zakarrontziak jartzeko eta kexu da argi gutxi dagoelako. | Paperontziak ingurune pribatu baterako eskatzen direnez ez dagokio Udalari horiek jartzea. Bestalde, argiari dagokionez, 2017ko uztailaren argitasunaren azterketa bat egin zen Electrociclos aldean. Eraitzen arabera alde horrek bete egiten du kanpoko argiteriaren eraginkortasun energetikoaren Erregelamenduak dioena, beraz, ez da ikusten beharrezkoa lehendik dagoen argiteria osatzea. |
| Obrak | Iparragirreko auzotar batek eskatu du oinezkoen pasabide bat jartzea Urkizu 34tik 19 zenbakiraino. | Ez da uste beharrezkoa denik leku horretan oinezkoen pasabide bat eraikitzea. Inguru horretan behar beste pasabide daude oinezkoentzat. |
| Zerbitzuak | Eskatu du Iparragirre 5, 7, 9 eta 11 zenbakien parean dagoen horma garbitzeko. | Horma 2018 urteko uztailean garbitu zen. |
| Zerbitzuak | Eskatu du Iparragirre 5 eta 7 zenbakien parean dagoen intxaurrondoa inautesteko. Dioenez, inguruko guztiak inausi zirela hori izan ezik, eta horrek eltxoak erakartzen dituela. | Intxaurrondoa inautesteko lan agindua egin da. |

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Beheko aldea

DATA: 2017/11/7

| Saila | Laburpena | |
|--------------|--|---|
| Zerbitzuak | Auzotar batek eskatu du erreka garbitzea LIDLren parean, sasiz eta sastrakaz betea dagoelako eta arratoiak ere irteten direla. | Udalerrian arratoiak akabatzeko ardura duenari abisua pasatu zitzaion inguru hartako arratoiak kentzeko egin beharrekoak egin ditzan. Errekaren garbiketari dagokionez, Ur Agentziari eman zitzaion abisua. |
| Obrak | Eskatu du Azitaingo geltokirako sarbidea hobetzea. Dioenez, zeharkatu behar den zubiak oso aldapa pikoa dauka; igaro behar den pasabideak argi gutxi duela eta, gainera, parkeko baldosa batzuk altxatuta daudela. | Pasabide berriaren proiektua idatzita dago, argi-aldaketa barne. Pasabidea egitea ala ez egitea aurrekontu-disponibilitatearen arabera dago, eta pasarela berriarekin, aldameneko gunea zolatuko da. |
| Udaltzaingoa | Auzotar batek kezka azaldu du erlauntza bat dagoela-eta, 26. eta 28. zenbakien parean. | Liztor asiarraren habia bada, protokolo bat jartze da martxan, abia desaktibatze, baina ez da kentzen. Beste alde batetik, Udalak ez du ohiko liztorren edo erleen habiekin ezer egiten, gune publikoetan ez badaude behintzat. |
| Zerbitzuak | Murrategi 12 zk.ko auzokide batek bere etxebizitza inguruko lursaila garbitzeko eskatu du. | Katastroa arakatu eta lursaila jabetza pribatukoa dela ikusi da. Eremu horren behaketa egin ostean, Udaltzaingoa jakinarazi du Murrategi 12 zk-ko eremua egoera onean dagoela. |
| Zerbitzuak | Murrategi 12. zk osteko eskailerak garbitzeko eskatu du; eta esan du labainkor daudela. | Eskailera horiek eremu pribatuan daude eta, ondorioz, ez dira Udalaren eskumenekoak. |
| Zerbitzuak | Eskatu du baranda bat jartzea erreka inguruan. | Ez da ikusten beharrezkoa horrelakorik jartzea. |
| Zerbitzuak | Auzotar batek komun publiko bat jartzeko eskatu du behealdean, Urkizu eta gasolindegia artean. | Kokapen desberdinak aztertzen ari gara. |

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Beheko aldea

DATA: 2017/11/7

| Saila | Laburpena | |
|--------------|---|--|
| Zerbitzuak | Salatu du Barrena kaleko 40 eta 42 zenbakien arteko espaloia labainkorra dela euria egiten duenean. | Espaloia garbitu zen ekainean. |
| Alkatetza | Auzotar batek eskatu du San Juanak eta Gabonak iristean, apaingarri gehiago jartzeko beheko aldean. | Merkatarien Elkarteari Gabonetako apaingarriak auzoetan ere jartzeko eskaera egin zitzaion eta aurten hala egingo da. |
| Alkatetza | Informazioa eskatu du autobusen geltoki berriaren kokapenari buruz. | 2016ko abenduan parte-hartze prozesu bat egin zen kalean bertan inkestak eginda, jakiteko geraleku hori lekuz aldatu behar den ala Egogain kalean mantendu behar den. Egindako 312 inkesta hartatik % 99 autobus-geltokia Matxarian ez jartzearen alde agertu ziren, beraz, autobus geltokia ez da lekuz aldatuko. |
| Zerbitzuak | Auzotar batek eskatu du Barakaldo 17 zk.aren ostean dauden arbolak inausteko. | Barakaldo 17aren ostea nahiz Buenos Aires etxerako bidea, biak pribatuak dira; beraz, ez dagokio Udalari haiek mantentzea eta arbolok inaustea. |
| Alkatetza | Zubi-Gain tabernatik beheraino Gabonetako argi gehiago jartzea eskatu du. | Merkatarien Elkarteari Gabonetako apaingarriak auzoetan ere jartzeko eskaera egin zitzaion eta aurten hala egingo da. |
| Zerbitzuak | Azitain eta Murrategi arteko zatia oso zikin dagoela dio. Esan du ia ezin dela espaloietatik ibili, eta goroldioz beteta daudela. | Garbiketa egin den dekapatzailearekin 2017ko martxotik apirilera bitartean. |
| Udaltzaingoa | Kexu da ibilgailuak lasaitasunez lagatzen direla Urkizuko geltokian eta auto-ilarak sortzen direla Barakaldo kaleraino. | Ez da erraza, baina kontrolatzen ahalegintzen gara. |

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Beheko aldea

DATA: 2017/11/7

| Saila | Laburpena | |
|--------------|---|--|
| Zerbitzuak | Eskatu du loreak edo landareak jartzea Barakaldo kaleko parkean dauden lorontzietan. | Lan-agindua egin da eta neguan landatuko dira lore berriak. |
| Zerbitzuak | Auzotar bat kexu da Urkizu parkeetako baldosak labainkorrak direla. | 2017ko urrian irrist ez egiteko tratamendu bat aplikatu zen Urkizuko parkeetan. |
| Alkatetza | Beheko aldea degradatuta dagoela dio. | Iritzi hori errespetagarria da. Hala ere, udal inbertsioei dagokienez, beti bilatzen da gune desberdinen arteko oreka. |
| Udaltzaingoa | Galdetu du ea txakurrek txiza egiten dezaketen edozein Lekutan. | Animalien Ordenantzak ez du arautzen txakurren pixarik. |
| Obrak | Auzotar batek salatu du ura sartzen errepide azpian dagoen tunelean, Eguzki-Begi etxe ondoan. | Kanaleta bat jarri zen ura batzeko, beraz, arazoa konponduta geratu zen. |
| Udaltzaingoa | Esan du Eguzki-Begirako bidean, ibilgailuek edozein lekutan lagatzen direla aparkatuta eta Udaltzaingoa ez dituela zigortzen. | Kontrolatzen dira ibilgailuen geldialdi desegokiak. |